

Langabeak 14.500 gutxiago dira, eta langabezia-tasa % 7,4ra arte jaitsi da, 2023ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEn


Landunak 10.800 gehiago dira, eta okupazio-tasa % 70,1era igo da

Euskal AEko lan-merkatuari buruzko 2023ko bigarren hiruhilekoko datuek erakusten dute 10.800 landun gehiago daudela eta 14.500 langabe gutxiago aurreko hiruhilekoan baino, Eustaten datuen arabera. Hiruhileko honetan 77.600 langabe daudela kalkulatzen da, eta 971.600 landun, 2023. urteko lehenengo hiruhilekoan baino % 1,1 gehiago.

Euskal AEko langabezia-tasa 7,4 da, 2023ko lehenengo hiruhilekoan baino ehuneko 1,3 puntu baxuagoa. Biztanleria landunaren eta langabearen bilakaeraren emaitza gisa, jarduera-tasa % 56,1 da 2023ko bigarren hiruhilekoan, ehuneko 0,2 puntu baxuagoa aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera

Ehuneko



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Lurralde historikoen arabera, eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian okupazioak gora egin du eta 8.900 landun gehiago daude, Gipuzkoan 2.200 gehiago eta Araban, aldiz, 300 gutxiago. Hiriburuei dagokienez, Bilbon 4.400 landun gehiago daude; Gasteizen, aldiz, 100 gutxiago, eta Donostian 3.200 gutxiago.

Okupazioaren gorakadarik handiena emakumeen artean izan da (+7.600); gizonen kasuan, 3.200 landun gehiago daude. Nazionalitateari dagokionez, Espainiako nazionalitatea duten landunen kasuan, 10.100 landun gehiago daude (+ % 1,2), eta, atzerritarren artean, 700 gehiago (+ % 0,8).

Okupazioak gora egin du sektore guztietan, industrian izan ezik

Euskal AEko landunen kopuruak gora egin du zerbitzuen sektorean (8.600 landun gehiago dira, + % 1,2), eraikuntzan (2.500 gehiago, +% 4,6) eta lehen sektorean (500 gehiago, +% 6,1); industrian, aldiz, behera egin du eta 800 landun gutxiago dira (-% 0,4).

Okupazio-tasa, 16 eta 64 urte bitarteko pertsona landunen ehunekotan kalkulatuta adin horien guztizkoaren gainean, ehuneko puntu bat igo da aurreko hiruhilekoaren alderatuta, eta % 70,1 da. Tasa hori % 73,1 da gizonetan, eta % 67,1 emakumeetan.

Nazionalitateari dagokionez, okupazio-tasa altuena nazionalitate espainiarra duten pertsonen artean dago (% 71,7), eta ehuneko puntu bat egin du gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; atzerriko nazionalitatea dutenen artean hiru hamarren igo da eta % 56,8 da.

Lurralde historikoei dagokienez, okupazio tasa altuena Gipuzkoakoa da (% 71,9), eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta ehuneko 0,7 puntuko igoera izan da. Gero, Bizkaikoa (% 69,3), aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 1,5 puntu handiagoa. Azkenik, Araban okupazio-tasa ehuneko 0,1 puntu jaitsi da eta % 68,9 da.

Soldatapeko pertsonen kontratazio-modalitateari dagokionez, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen kopuruak gora egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta 11.100 gehiago dira, eta, aurreko urtearekin alderatuta, 51.400 gehiago.

Hamar etxetik seik pertsona aktibo guztiak dituzte okupatuak, eta 6.300 gutxiago dira pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten etxeak

Kalkulatzen da 2023ko bigarren hiruhilekoan 908.600 etxe inguru daudela Euskal AEn, eta, haietatik, herenek ez dutela pertsona aktiborik, aurreko hiruhilekoan baino 400 etxe gutxiago izanik; hamar etxetik ia seitan pertsona aktibo guztiak daude okupatuta, 11.100 familia gehiago; eta, gainera, etxeko pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten 25.900 etxe daude, aurreko hiruhilekoan baino 6.300 gutxiago.

2023ko bigarren hiruhilekoak % 7,4ko langabezia-tasa du, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 1,3 puntu gutxiago

Euskal AEko langabe kopurua, hau da, enplegua bilatzen ari den, bilaketarako kudeaketa aktiboak egiten dituen eta, gainera, lan egiteko prest dagoen pertsona kopurua, urteko bigarren hiruhilekoan, 77.600 pertsonakoa dela kalkulatzen da, aurreko hiruhilekoan baino 14.500 pertsona gutxiago. Emakume langabeen kolektiboa 38.400 pertsonakoa da; 8.600 gutxiago. Gizon langabeen kopurua ere jaitsi egin da, eta 5.900 gutxiago dira, eta guztira 39.200 dira hiruhilekoan.

2023ko bigarren hiruhilekoko datuen arabera, hiruhilekoan langabezia-tasa % 7,4koa da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 1,3 puntu gutxiago. Emakumeen langabezia-tasa ehuneko 1,7 jaitsi da, % 7,6ra arte, eta gizonena % 7,2koa da (-% 1,1).

Nazionalitateari dagokionez, langabeen kopuruak behera egin du Espainiako nazionalitatea dutenen artean, eta 9.800 gutxiago dira; guztira 57.900. Atzerriko nazionalitatea dutenen artean ere, langabeziak behera egin du eta langabeak 4.800 gutxiago dira; guztira 19.600.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian langabe kopuruak behera egin du, eta 8.700 gutxiago dira, eta langabezia-tasak ehuneko 1,6 puntu egin du behera eta % 8,2 da. Araban 11.000 langabe daude, 3.100 gutxiago, eta langabezia-tasa 1,8 puntu jaitsi da, % 7ra arte. Gipuzkoan 2.900 langabe gutxiago daude, eta langabezia-tasa ehuneko 0,8 jaitsi da eta % 6,2 da.

Hiriburuei dagokienez, Gasteizen 2.900 langabe gutxiago daude eta Bilbon 1.400 gutxiago; Donostian, aldiz, 2.500 gehiago daude, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

EUROSTAT - Europar Batasuneko Estatistika Bulegoaren arabera, 2023ko maiatzean Europar Batasuneko urtaroen arabera ez den langabezia-tasa % 5,9 izan da, eta Espainiakoa % 12,7.

Azken urtean, landunen kopuruak % 0,9 egin du gora, eta langabezia-tasa % 8,5etik % 7,4ra jaitsi da

Euskal AEko biztanleria landunaren kopuruak % 0,9 egin du gora 2022ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta landunak 8.500 gehiago dira, beraz. Langabezia-tasa ehuneko 1,1 jaitsi da (% 8,5etik % 7,4ra), eta 12.300 pertsona gutxiago daude, beraz, langabezia-egoeran Euskal AEn, 2022ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Hiruhilekoko batez besteko afiliatuen % 97,2 lanean ari dira, LANEren irizpideen arabera

Euskal AEn hiruhilekoan, batez beste, 933.100 afiliatu daudela zenbatesten da, hau da, hiruhilekoan lan egindako egun kopuruaren arabera haztatutako Euskal AEko biztanle eta Gizarte Segurantzako afiliatu. Haietatik % 97,2 landunak dira, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) irizpideen arabera, BJAk darabiltzanak izanik; eta 907.200 lagun dira, beraz.

BJAren LANE okupatuen artean, % 3,5 ez dira Gizarte Segurantzako afiliatu (33.700), funtzionarioen mutualitate publikoetakoak direlako edo beste egoera batzuetan daudelako.

Langabeen % 35,8 ez daude Lanbiden langabe erregistratu gisa

Euskal AEn zenbatesten da 89.000 langabe daudela Lanbiden erregistratuta hiruhilekoan, batez beste; hau da, Euskal AEn bizi eta, inkesta egin den unean, langabeziako kategoria kalifikaturen batean daudela Lanbiden erregistratuta. Haietatik % 52,3 langabeak dira, LANEren definizioaren arabera (46.600 pertsona). BJAren LANE langabeen artean, % 35,8 ez daude langabe moduan erregistratuta Lanbiden (27.800 pertsona), baina enplegu-eskatzailen beste kategoria batzuetan egon daitezke.



Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. 2023/II

	2023/II	2023/I	t/t-1	
	Mila	Mila	Mila	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.870,4	1.868,6	+1,8	0,1
BIZTANLERIA AKTIBOA	1.049,2	1.052,9	-3,7	-0,4
Gizonak	544,2	547,0	-2,8	-0,5
Emakumeak	505,0	506,0	-1,0	-0,2
Araba/Álava	157,0	160,4	-3,4	-2,1
Bizkaia	546,5	546,3	+0,2	+0,0
Gipuzkoa	345,6	346,2	-0,6	-0,2
Vitoria-Gasteiz	117,0	120,0	-3,0	-2,5
Bilbao	168,3	165,2	+3,1	+1,9
Donostia / San Sebastian	88,1	88,9	-0,8	-0,9
Beste udalerriak	675,8	678,8	-3,0	-0,4
Espainiarrak	942,9	942,6	+0,3	+0,0
Atzerriko nazionalitatea	106,3	110,4	-4,1	-3,7
BIZTANLERIA LANDUNA	971,6	960,8	+10,8	+1,1
Gizonak	505,0	501,8	+3,2	+0,6
Emakumeak	466,6	459,0	+7,6	+1,7
Araba/Álava	146,0	146,3	-0,3	-0,2
Bizkaia	501,5	492,6	+8,9	+1,8
Gipuzkoa	324,1	321,9	+2,2	+0,7
Vitoria-Gasteiz	108,6	108,7	-0,1	-0,1
Bilbao	152,8	148,4	+4,4	+3,0
Donostia / San Sebastian	81,2	84,4	-3,2	-3,8
Beste udalerriak	629,0	619,3	+9,7	+1,6
Espainiarrak	885,0	874,9	+10,1	+1,2
Atzerriko nazionalitatea	86,6	85,9	+0,7	+0,8
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	8,7	8,2	+0,5	+6,1
Industria	192,1	192,9	-0,8	-0,4
Erakuntza	56,6	54,1	+2,5	+4,6
Zerbitzuak	714,2	705,6	+8,6	+1,2
Soldadako	797,5	786,2	+11,3	+1,4
Lan-kontratu mugagabearekin	619,9	608,8	+11,1	+1,8
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	177,6	177,4	+0,2	+0,1
Soldatarik gabeak	174,1	174,6	-0,5	-0,3
BIZTANLERIA LANGABEA	77,6	92,1	-14,5	-15,7
Gizonak	39,2	45,1	-5,9	-13,1
Emakumeak	38,4	47,0	-8,6	-18,3
16 - 24 urte	10,9	11,8	-0,9	-7,6
25 - 44 urte	31,9	42,4	-10,5	-24,8
45 urte eta gehiago	34,8	38,0	-3,2	-8,4
Araba/Álava	11,0	14,1	-3,1	-22,0
Bizkaia	45,0	53,7	-8,7	-16,2
Gipuzkoa	21,5	24,4	-2,9	-11,9
Vitoria-Gasteiz	8,4	11,3	-2,9	-25,7
Bilbao	15,4	16,8	-1,4	-8,3
Donostia / San Sebastian	7,0	4,5	+2,5	+55,6
Beste udalerriak	46,8	59,5	-12,7	-21,3
Espainiarrak	57,9	67,7	-9,8	-14,5
Atzerriko nazionalitatea	19,6	24,4	-4,8	-19,7
BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA	821,2	815,6	+5,6	+0,7
ETXEGUNEAK	908,6	908,2	+0,4	+0,0
Pertsona aktiboekiko familia-ebeak	601,2	600,3	+0,9	+0,1
Denak okupatuak	539,7	528,6	+11,1	+2,1
Denak langabeak	25,9	32,2	-6,3	-19,6
Pertsona aktiborik gabeko familia-ebeak	307,5	307,9	-0,4	-0,1

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1etik populazioaren gaueko datuekin.

t/t1 Behatutako azken hiru hilabetearen aldakuntza aurreko hiru hilabetearen aldean

Data 2023ko Uztailaren 21a

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. Tasa nagusiak. 2023/II

	2023/II	2023/I	t/t-1 (p.p.)
JARDUERA-TASA	56,1	56,3	-0,2
Gizonak	60,6	61,1	-0,5
Emakumeak	51,9	52,0	-0,1
Araba/Álava	56,2	57,6	-1,4
Bizkaia	55,7	55,7	+0,0
Gipuzkoa	56,7	56,9	-0,2
Vitoria-Gasteiz	55,9	57,6	-1,7
Bilbao	56,9	56,0	+0,9
Donostia / San Sebastian	56,8	57,0	-0,2
Beste udalerriak	55,8	56,1	-0,3
Espainiarrak	55,0	55,1	-0,1
Atzerriko nazionalitatea	67,9	70,4	-2,5
OKUPAZIO-TASA (16 urtetik 64ra)	70,1	69,1	+1,0
Gizonak	73,1	72,4	+0,7
Emakumeak	67,1	65,9	+1,2
Araba/Álava	68,9	69,0	-0,1
Bizkaia	69,3	67,8	+1,5
Gipuzkoa	71,9	71,2	+0,7
Vitoria-Gasteiz	68,2	68,2	+0,0
Bilbao	70,0	68,0	+2,0
Donostia / San Sebastian	72,8	74,5	-1,7
Beste udalerriak	70,1	68,9	+1,2
Espainiarrak	71,7	70,7	+1,0
Atzerriko nazionalitatea	56,8	56,5	+0,3
LANGABEZIA TASA	7,4	8,7	-1,3
Gizonak	7,2	8,3	-1,1
Emakumeak	7,6	9,3	-1,7
16 - 24 urte	19,4	19,9	-0,5
25 - 44 urte	7,5	9,8	-2,3
45 urte eta gehiago	6,1	6,8	-0,7
Araba/Álava	7,0	8,8	-1,8
Bizkaia	8,2	9,8	-1,6
Gipuzkoa	6,2	7,0	-0,8
Vitoria-Gasteiz	7,2	9,4	-2,2
Bilbao	9,2	10,2	-1,0
Donostia / San Sebastian	7,9	5,0	+2,9
Beste udalerriak	6,9	8,8	-1,9
Espainiarrak	6,1	7,2	-1,1
Atzerriko nazionalitatea	18,5	22,1	-3,6
INAKTIBOTASUN TASA	43,9	43,7	+0,2

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1 ekiko populazioaren gaurkotzearekin.

t/t1 Behatutako azken hiru hilabetearen aldakuntza aurreko hiru hilabetearen aldean

p.p. = Aldea portzentajezko puntutan

Data 2023ko Uztailaren 21a

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62